

ADDA, J. (1998,2004): *Ekonomiaren Globalizazioa: sorrerak eta arazoak*. EHUko Argitalpen Zerbitzua. Leioa.

KONKURRENTZIA ETA ANTOLAMENDUA

Bi dira merkatuko ekonomia modernoen funtzionamendua gidatzen duten printzipioak: konkurrentzia eta antolamendua. Aurrenekotik, dinamismoa, hedapen-indarra, berrikuntzarako eta egoera berrietara egokitzeko ahalmena ateratzen dute ekonomiek. Bigarrenaren mendeko dirá merkatuko ekonomien egonkortasuna, gizarte-loturen iraupena, aberastasunaren banaketarako ahalmena eta kanpoko erasoetatik babesteko gaitasuna.

Askoren iritziz, kapitalismoaren bilakaera historikoa, ordu arte modu hierarkikoan antolatuta zeuden eta «trukearen jokoa» bazterreko gisa eta oso modu kodetuetan baizik onartzen ez zuten gizarte-ordenetan konkurrentziaren printzipioa indarrez sartu izanaren ondorio gisa interpretatu behar da. Indarrezko sarrera horrek egongaiztasun handía dakar, eta gizataldeen defentsazko erreakzioak, sortzen ditu; kasu batzuetan (Errusia 1917an, Iran 1979an) kapitalismoaren ukoa ekarri du, eta beste batzuetan berriz, konkurrentziaren printzipioaren egituratze instituzionala, gizarte mailako ondorio negatiboak gutxiagotzen dituena. Mendebaldeko 1930eko hamarraldiko krisiak adierazten du argiena konkurrentziazko mekanismoak duen ahalmen suntsitzailea, guztiz bere kasa uzten zaionean.

Gerraren ondoren, halako oreka bat aurkitu zen Mendebaldeko ekonomietan konkurrentziaren eta antolamenduaren artean. Ekonomia- eta gizarte-harremanen erregulazio-eredu keynestarrak (eta ez bakarrik une jakinetako gorabeherak kudeatzekoa), ezohiko hazkunde baten oinarriak ipini zituen, bai bere handitasunagatik, bai bere erregulartasunagatik. Aipatzekoa da antolamendu-printzipioak nazioarteko ekonomia-harremanetan ere utzi zuela arrastorik, Estatu Batuen gidaritza hegemonikoari esker. Nazio kapitalista aurreratuek —sobietar mehatxuak eta estatubatuar aterki nuklearrak elkarrengaturik—, diruaren, finantzen eta merkataritzaren alorrean Estatu Batuek ezarritako arauak onartu zituzten. 1960ko hamarraldiaren hasiera arte, nazioarteko ordena ekonomikoa oso hierarkizatua zegoen, konkurrentziaren printzipioaren arabera bezainbeste osagarritasun bertikal baten arabera egituraturik. Estatubatuar ekoizpen- eta kontsumo-arauen hedapena, dolarraren nazioarteko diru-estatusa, atzerriko estatubatuar inbertsioak, petrolioaren iturriak

eta hornidura zirkuituak «zazpi ahizpen» esku egotea, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lanaren usadiozko banaketa, horiek ziren ordena ekonomiko horren ezaugarri nagusiak.

Gaur egun duen bilakaeraren ikuspuntutik aztertutik, globalizazioa analiza daiteke nazioarteko ordena hegemoniko hori auzitan jartzetik, ekonomia industrializatuari gerra ondoko oparotasuna ekarri zien gizarte-arau eta konpromisoak auzitan jartzera daraman prozesu gisa. Zentzu horretan, konkurrentziaren printzipioaren mundu osoko garaipenaren sinonimo da globalizazioa, antolamendu-printzipioaren kaltetan. Estatu Batuetan gerraren ondoren tankeratu zen nazioarteko ordenaren hondamenak ziklo hegemoniko bat burutu dela adierazten du. Hondamen hori, oroz gain, gaur egun munduko ekonomian nagusi diren hiru ardatzen (Estatu Batuen, Mendebaldeko Europaren eta Japoniaren) arteko teknologia- eta finantza-harreman indarrezkoen oreka berriaren adierazpide da. Ziklo honen bukaeraren berezitasuna ez da berehala beste ziklo baten hasierarekin lotu ez izana, baizik eta bere horretan dirauela Ekialde-Mendebalde konfrontazioaren testuinguru berezian eraturiko Estatu Batuen gidaritza militar eta politikoak. Litekeen gauza dirudi, sobietar mehatxua desagertutik, indarrezko elkartasun batek orain arte ezkutatatu dituen gatazkak azaleratzea.

Ziklo hegemoniko honen bukaeraren beste berezitasun bat, Robert Reich-ek eman duen deskribapen erakargarriaren arabera, bere lurralde-oinarritik gero eta bereiziago dagoen estatubatuar kapitalismoaren dinamismo iraunkorra da. Beste kapitalismo nazionaletan ere, indar handiagoz edo txikiagoz, ageri den bereizketa horixe dago globalizazioaren muinean. Ikusmolde historiko zabala hartutik, lurraldetasunaren galera bi fenomenoren emaitza da: munduko espazioaren desberdintasunak ustiari nahi dituzten kapitalen zabalkunde-prozesu etengabearena, batetik, eta, bestetik, konkurrentziaren printzipioaren indarra mugatzeko estatuek ipintzen dituzten arauak azpiak jateko kapital horiek beroriek etengabe egiten duten lanarena. 1960ko hamarraldiko eurodolarren merkaturaren eraketa eta industria-ekoizpenak soldata apaleko lekuetara eramatea dirá, dudarik gabe, logika honen agerpiderik argienak; nolana ere, Erdi Arokoak dirá logika horren lehen agerraldiak.

Hierarkia, antolamendu eta osagarritasunezko printzipioetan oinarritutik nazioarteko sistema ekonomikoaren oreka egongaitzetik, beraz, munduko ekonomiaren egiturazko egongaitasunera igaro gara; ekonomia horren ezaugarri dirá gidaritzarik ez izatea, konkurrentzia orokorra (enpresen artekoa ez ezik, baita nazioen artekoa ere), eta arau falta nabarmena. Munduko ekonomiaren integrazio gero eta handiagoak eskatzen duen erregulazio modu berrien ordean, desarautze lehiakor bat ari da nagusitzen, eta desarautze hori,

nazioarteko mailatik nazio-mailara igaro ondoren, finantzen eremutik, modu arriskutsuan, gizartearen alorrera ari da igarotzen.

Estatuak, kapitalen mugikortasun gero eta handiagoak elkarren lehian ipini dituelarik, finantza-merkatuen mende jarri, guztiz ezgai dirá itxuraz, Mende-baldean bereziki, gizarte-sareen haustura saihesteko. Munduko gidaritza benetakorik gabe, nazioarteko lankidetzak, gaur egun arte, premia-koena zena egitera mugatu dela dirudi; hots, ahaleginak egin ditu finantza-krisi agerikoen (garapen-bideko herrialdeen zorraren krisia, 1987ko burtsaren krisia, 1994ko Mexikoko krisia, 1997-1998ko finantza-desorekak, etab.), edota ezkutuko krisien (Ipar-Ipar finantza-desorekak) hedatzea galarazteko eta protekzionismo orokor bat berpizteari aurre hartzeko (Uruguay Round-en bukaera). «Berrarrautzearen» ahalegina, Nazioarteko Erregulazioaren Bankuaren baitan bankuen mailan nola hala abian jarria, urruti dago oraindik bankuak nahiz finantza-merkatuak mehatxatzen dituzten arrisku sistemikoei erantzun asegarriak ematek. Izen hori merezi duen nazioarteko diru-sistema bat berreraikitzeari dagokionez, ez dirudi plazaratu denik, nahiz eta truke-tasen egon-gaitasunak arazo larriak ekarri.

Antolamendu-printzipioak nazioarteko mailan ezin bideratuzkoa dirudi, baina bidera daiteke eskualde mailan, printzipio hegemonikoa koadro horren baitan berrindar daitekeenez (NAFTAren kasua), edota helburu komun batek bateratzen dituen herrialdeen artean herrialde boteretsuenen arteko tradiziozko oreka bultzatzen daitekeenez (Europar Batasunaren kasua). Nazioarteko ekonomia-harremanak eskualdeko bihurtzea. oso aurreratua (EB), antolamendu-bidean (NAFTA) edota berez sortua (Ekialde Urruna), alternatiba sinesgarria da huts-hutsik pribatua eta konkurrentziazkoa dirudien globalizazio-logika baten aurrean.

Eskualde horietako bakoitzean, espazio ekonomikoa erdialde baten (Triadako hiru ardatzak) eta semiperiferia baten inguruan antolatzen da. Izan ere, semiperiferia oso espazio egokia da kapitalismoaren zabalkunderako: Europaren hegoaldea eta ekialdea EBren gune nagusiarentzat, Mexiko eta, teoriarik, Latino Amerika osoa NAFTAren kasuan, Urruneko Ekialdea Japoniarentzat eta lehen belaunaldiko herrialde industrializatu berrientzat, laster ezingo baila haien nagusitasuna auzitan jarri. Hiru espazio horiek beren baitara oso bilduak daude, eta aise bereiziko lirateke krisi handiren bat gertatuz gero. Antzeko ahalmenak dituzten hiru multzo dira orobat, eta, horren ondorioz, munduko ekonomiaren erregulazio hirukoitza egiteko nahitaezko diren konpromisoak negoziatzeko gai ere badira, behin eskualde bakoitzaren integrazio-prozesua amaitua denean.

Ikusmolde desberdin hauek, alabaina, ez dute argitzen munduko ekonomiaren eremu periferikoen etorkizunaren auzia; izan ere, Saharaz hegoaldeko Afrika aldea, arabiar mundua, Asiako erdialdea, garapenetik kanpo utzi dirá oraintsu arte, eta, petrolioarengatik izan ezik, ez dirudi munduko kapitalismoarentzat interesgarri direnik. Kapital pribatuak ez dirá bertaratzen, edo alde egiten dute handik; herrialde horiek gehienek finantzamendekotasun larriak dituzte, eta, horren ondorioz, herrialde garatuek ez dituzte kontuan hartu ere egiten, ez bada ekar diezazkieketen mehatxuengatik: demografia-leherketa aurrenik, eta horren ondoriozko migrazio-presioa gero. Azken finean, globalizazio-prozesuak alboratu duena da hori, hau da, lanaren nazioarteko mugikortasuna, kualifikazio gutxikoa edo batere kualifikaziorik gabea denean. Etorkinen lana da, baimendua, baita antolatua ere metaketaren oinarriak oraindik nazionalak zirenean, gaur egun konkurrentziazko desarautzearen arriskua gutxiena pairatzen duen alorra.

Galderak:

- Liberalizazio ekonomikoak kalte eta eskuhartzeak onura besterik ez dakarrela ondorioztatu beharko genuke orain arte aztertu dugunetik?
- Zer oreka mota beharko litzateke konkurrentzia eta antolamenduaren artean globalizazioak sortzen dituen kalteei aurre egin ahal izateko?